

# ADITZA SAIHESBIDETIK

Xabier Amuriza

*Aditza menperatu ezinik dabilzan ikasleei  
euren dorpetasuna ote den dudatzeraino*

Haizeak darama, haizeak dakar. Batzuetan. Haizeari entregatzen diot aditza, itxaronez ezen, bueltan ekartzerik pentsatuko balu, tresna baliagarriagoa izango dela. Kontua ez da euskara erraza, baizik euskaraz erraz egitea.

Dakiguna edo ikasi duguna «kostata» egitearen erantzule nagusia aditza da. Baldin aditza ez askatzen, aditzak euskara itoko. Haizeak ez luke huts egin behar, baina desioak kontrako beldurra ere bere gain darama. Aldaketa garrantzitsuen denbora luzea izaten da. Batzuetan, gertatzen dira. Sarritan, ez dira gertatzen. Haizearen mende gaude.

«Hizkeraz» ari gara. «Hitz egin». Idatzi, hizkuntza bat, galdua ere, idazten ahal da. Idaztea ez da arazoa. Hitz egitea da arazoa. Hitz egiten den hizkuntza bakarrik doa aurrera. Hitztunek euskalkian hitz egiten dute. Horretan, batua euskalki bat gehiagotzat jo daiteke. Euskalki nazionala, nahi baduzu, baina, oraindik, hizkuntza nazionala izatetik oso urrun.

Aditza «sinplifikatu». Inoiz erabili izan dut kontzeptu hori, baina ez. Laga bertan. Zer hartu, zer utzi, kalapita infinitua litzateke. Laga bertan, nahi diren efektuetarako. Errima, poesia, ironia, solemnitatea, singularitasuna ... Efektuak, funtsean. Erregistro zabal bat. Arrazoi asko daude dagoena bertan lagatzeko. Bilatu nahi duguna B plana da. «Saihesbidea». Edozein herri handi samarrek daukana. Aukera bikoitza. Hiri barrutik edo saihesbidetik.

Durango, adibidez. Bazatuz Urkiolan behera, eta Mañaria igaro ondoren, Izurtatik lehen sarrerako biribilgunean, eskuin hartu baduzu, hurrengo, eskuin, Tabira kalea da. «Dizkidazue». Hurrengo, biribilgunea. «Zaituztegu». Hurrengo, «Zatzaizkit». Hurrengo kantoia, «Nizueke». Hurrengo, «Diezadazun». Hurrengo, «Zenidaten», «Gaituzue», «Zaramatzat», «Zenizkidake», «Dakizkigun» ... Segi zuek hortik. Ni, saihesbidetik, sartu naiz autopistan, eta banoa.

«Hiztunak» esatean, gehien-gehiengoa esan nahi dugu. Aditza, hizkeran, oso samar eta erraz erabiltzeko gai diren hiztunak ez dira %10. Seguruenik, %5 ere ez. Beraz, «hiztunak» diogunean, ia hiztun guztiez ari gara.

## I) SAIHESBIDEA

Saihesbidea errazteko, euskal aditzak badu abantaila bat bere aurpegi ugarietan: *etor*, *etorri*, *etortzen*, *etortzea*, *etorriko*, *etortzeko*, *etortzean*, *etorritakoan*, *etorririk* - *etorrira*, *etorriz*, *etortzera*, *etortzerako*, *etortzeke*, *etortzear*, *etortzekotan* ... Gaztelaniaz, adibidez, aditz-jokotik aparte, bakarrik daude *venir*, *venido-a*, *viniendo*. Badira *venida* edo *venidero*, euskaraz ere badiren bezala *etorrera*, *etorkin*, *etorkizun* ..., baina horiek ez dira aditzak.

## II) ZER DIO HERRIAK?

Ondorengo esamoldeak ez dira nik asmatuak, entzuten ditudanak baizik.

- Tikerik nahi?
- Eskerrik asko! Ez nahi, ez behar.
  
- Musu bat emango?
- Pa!
- Orain nik zuri emango?
- Ez!
  
- Astebururako zer asmo?
- O! Bertan ikusiko.
  
- Zelan?
- Hementxe. Ondo bizi nahi, baina ezin nahi bezala.
  
- Ba ote zerurik benetan?
- Hiltzean jakingo.
  
- Bukatua denbora. Egina lana. Zer iruditu?
  
- Etxeparek idatzi zuen:

Oraidano egon bahiz inprimitu bageric  
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.

- Xalbador kantatu zuen, «emazte zenduaren soinekoari bi bertso» izeneko bakar gaiaren lehenengoan:

Pentsa zazute alargundu bat  
ez daike izan urusa.  
Dolamen hunek oi ez dezala  
ainitz gehiago luza.  
Orai urtea ziloan sartu  
andreñoaren gorputza.  
Haren arropa hantxet dilindan  
penaz nik ikusten hutsa».

Bertso ospetsu horretan hiru «saihesgune» daude. Xalbadorrenak bi dira. Hirurak ere izan daitezke, baina bat neurea da. Asma beza irakurleak zein.

- Xenpelarrek kantatu zuen:

Ezkondu eta ezkongai  
guztiak ondo bizi nahi  
dirua degunian jai.  
Familiako buruzagiak  
kontu gehiago ere bai.  
Lehen ardua edan lasai  
orain urrutitik usai  
etxian nago andre zai.

Euskal hiztun gehienek kantatu edo entzun izan duten estrofa hau euskara ezin zuzenago eta naturalagozat joa izan da beti. Ba, bertso honetan bost saihesgune daude. Eta bertso osoan, aditz laguntzailerik bat ere ez dago.

Entzun ditudan analogia ugarietako batzuk.

- Etxean zer ikusten, umeak hura ikasten.
- Zuk zer agindu, nik horixe egingo.
- Nik gaizki egiten guztia, baina egiten. Zuk ondo egiten guztia, baina gutxi egiten.
- Zuk zertarako nahi, ni (hartarako) prest beti.
- Zuk noiz behar, ni han egongo.
- Zuk zer agindu, nik pozik egingo.
- Zuk nola jokatu, nik berdin egingo.
- Bai, bai! Zuk besteen gauzak oso erraz konpontzen, baina zeure burua, ahal den moduan bakarrik.
- Egia! Zuk niri mesede guztiak egiten, eta nik zuri esker txar guztiak ematen.
- Orain, nik zuei emango kopiak, eta gero zeuek banatu gainerakoei.
- Noiz guk elkar ikusiko berriz?

### III) SUBJUNTIBOA

- «Kontsulta bat eskatuko dut, neurologo batek ikus zaitzan».
- «Zer egin dizuet nik, esker txar hori eman diezadazuen?».

Zaitzan, diezaguzuen, gaitzazuen, diezazudan ....

Hiztunek ez dakite adizki horiek esaten. Eta iraganean, are gutxiago:

Genitzan, zintzagun, gintzazuen, geniezazun, ziezazkidan ....

Zer egin?

#### 1. T(Z)EKO

- «Kontsulta bat eskatuko dut, neurologo batek zu ikusteko».
- «Zer egin dizuet nik, zuek guri esker txar hori emateko?».

Eta horrelaxe subjuntibo guztiak, oraineko nahiz iraganeko. Beste pare bat adibide:

- Nik zer egin dizut-nizun zuri, zuk niri zorrak ordaindu nahi ez izateko?
- Ez dakit-nekien zer egin behar dudan-nuen zu egoeraz jabetzeko.

#### 2. T(Z)EA

- Ez da nahikoa zuek niri dena barkatzea (barka diezadazuen) ni zuekin denean konforme egoteko (egon nadin).
- Komeni da gai hau denon artean aztertzea (azter dezagun), txoriburu baten asmakizuntzat ez gelditzeko (gelditu ez dadin).
- Zu ere proiektu honen parte izatea (izan zaitezen) nahi genuke.
- Zu ere proiektu honen parte izatea (izan zintezen) nahi genuen.

Bi baliabide horiekin, T(Z)EKO - T(Z)EA, subjuntibo guztien arazoa argi eta zuzen konpontzen da. Testuinguruen arabera, beste saihasbide batzuk ere egon litezke, baina bi badiren tokian, ez gara saiatuko gehiagoren bila.

## IV) PARTIKULAK

1) NAHIZ. Kontzesiboa. Edo «nahiz eta». Partikula hau oso esanguratsua da, bi jokaera berdin argi eta ohiko baitauzka:

- Nahiz nik ezetz esaten diodan - ezetz esan, berak baietz beti.
- Nahiz zuek lan onak egin dituzuen - onak egin, ezin dizuet gehiago ordaindu.

Partizipiozko bigarren formak abantaila handiak ditu. Laburtasunaz gainera, denbora guztiak adieraz ditzake, aditz nagusiaren arabera:

- Nahiz nik ahalegin guztiak egin, ezin izan nuen lortu. Edo: Ezin nuen, ezin izango nuen, ezingo nuke, ezin izango nukeen, ezin izan dut, ezin dut, ezingo dut.

Esaldiaren lehen zatiak bigarren zati guztientzat balio du.

«Arren» partikulak ere bi jokaerak onartzen ditu.

- Nahiz zuk maiz errepikatu - errepikatzen duzun, ez dut ulertzen ...
- Zuk maiz errepikatu arren - errepikatzen duzun arren, ez dut ulertzen ...

Kontzesiborako badira baliabide gehiago ere, hala nola: «Harrigarria bada ERE. Harrigarria izanik/izanda ERE».

Diogun, atal hau amaitzeko, kontzesibo guztia konpontzen dela erraz eta zuzen, aditza jokatu beharrik izan gabe.

## 2) ANALOGIAK

Zergatik ez NAHIZ partikularen jokaera zabaldu beste partikula batzuetara, hizkuntzaren lege funtsezkoetako bat den analogia aplikatuz? Horixe egingo dugu honako partikula garrantzitsu hauekin: BALDIN, ORDUAN, ZER, ZE - ZEREN, EZEN, NOIZ, NOLA ...

### 3) BALDINTZA

«Baldin» partikulari «nahiz» partikularen analogia aplikatuz, aditzaren jokoak saihestu.

- Baldin zuk mirarrietan sinesten, alferrik izango kontrako arrazoiak ematen hastea.
- Baldin zuk nahi, egingo.
- Baldin zuk nahi, nik pozik egingo.
- Baldin eguna gaizki hasten, gaizki amaituko gehiengan.
- Baldin zuek zerbait ez ulertzen ondo, eskatu argitasunak beldur gabe.

Beste era batzuk:

#### KOTAN / ERA

- Zuk mirarrietan sinestekotan - sinestera, nik sorginetan sinetsiko.
- Zuk hori egitekotan, neuk ere egingo.

#### -Z GERO

- Zeuk gura izanez gero, egingo duzu.
- Gu isilduz gero, nork defendatu behar gaitu?

#### EZIK / EZEAN

- Egoerari geuk aurre egin ezik, nork egingo?
- Bakoitzak zerbait egin ezean, ez dago denen artean egiterik.

### 4) MODUA

«Bezala» partikulak jokaera biak ditu. Batetik:

- Sentitzen den bezala jokatu.
- Nahi den bezala bizi.
- Ikusi dugun bezala kontatu.
- Pentsatzen genuen bezala jokatu.



Bestetik, aditz-joko gabe:

- Sentitu bezala jokatu.
- Nahi bezala bizi.
- Ikusi bezala kontatu.
- Pentsatu bezala jokatu.

Hauen subjektua eta denbora testuinguruan daude.

## LEZ - LEGEZ, MODUAN

Analogiaz, hauek ere «bezala» partikularen jokaera hartzen doaz.

- Sentitu legez - moduan jokatu.
- Behar legez - moduan egin.
- Ikusi legez - moduan kontatu.
- Nahi lez bizi.

## NOLA

«Nahiz» partikularen analogia aplikatuz, aditzaren jokia saihestu.

- Nola antolatu gauzak, gero hala etortzen emaitzak.
- Nolako kulturari gu jaiotzeko, hala pentsatzera jotzeko gero.
- Nola nik pentsatzen, hala egiten gauzak.

Ordena aldatzea komeni bada:

- Nik beti (hala) egiten gauzak nola neuk pentsatu.

Kontua da, aditz-jokoa saihestuz, esanahia argi gelditzea. Eta gelditzen da.

## 5) DENBORA

### NEAN

Ohikoena den denbora-atzizki honek aditz jokotua eskatzen du, nahitaez. Ba al dago aditz-joko hori saihesteko modurik?

## ORDUAN

Denboraren esanahian, hiztunen eremu handi batek NEAN = ORDUAN egiten du, sistematikoki.

- Nagusitu ginenean = nagusitu ginen orduan.
- Gauzak okertzen direnean = gauzak okertzen diren orduan.

Are hiztun gehiago dira aditz jokatua ezabatzen dutenak, aurreko kasu batzuetan ikusi bezala: Gauzak okertu orduan. Etxera itzuli orduan. Negua iritsi orduan. Hauek ere denbora guztiak izan daitezke, testuinguruaren arabera.

T(Z)EAN, TAKOAN, T(Z)ERAKO, T(Z)ERAKOAN ...

Atzizki hauek denbora adierazten dute, aditza jokatu gabe: Etxera itzultzean. Etxera itzultzerakoan. Etxera itzultitakoan. Etxera itzultzerako.

## NOIZ

«Nahiz» partikularen analogia aplikatuz, aditzaren jokoa saihestu.

- Noiz ni gosetu, orduan jango.
- Noiz guk ahal, orduan egingo.
- Noiz nik gogoa izan, orduan egingo, eta ez zuk aginduta.
- Noiz ni jubilatzen, orduan hasiko euskaraz ikasten.

Ordena inbertituz:

- Egingo dugu, noiz guk ahal.
- Erretiratuko naiz, noiz indarrak agortu.

Inbertsio horretan, ez da beharrezko bigarren terminoa izendatzea.

- (Orduan) egingo dugu, noiz guk ahal.
- (Orduan) erretiratuko naiz, noiz indarrak agortu.

Adibide hauetan ikusten denez, aditz jokatua ezabatuz, ez da esanahiaren argitasuna galtzen. Nahiz hizkeran ez izan ohikoak, ondo ulertzen dira.

## 6) KAUSALA: ZE - ZEREN

«Nahiz» partikularen analogia aplikatuz, aditzaren jokia saihestu.

- Nik sinesten mirarrietan, zeren ipuinak ere beharrezko izan.
- Ezin nik azterketarik egin, ze ikasteko astirik ezin hartu izan.
- Zerbait bihurria gertatzen zure buruan, zeren zuk ez ukan motiborik ni horrela epaitzeko.

## 7) KONPLETIBOA

EZEN

- «Nahiz» partikularen analogia aplikatuz, aditzaren jokia saihestu.
- Nik uste ezen guk ez behar inoren laguntzarik hori egiteko.
- Nik susmatzen ezen aditzaren saihesbide hauek ikasleei asko gustatuko.
- Pentsa ezen alargundu bat ezin izan urosa.
- Ni beldurtzen ezen saihesbide hauek ez izango denen gustuko.
- «Ezen» partikula ezabatuz ere, esanahia argi, sarritan.
- Nik uste guk ez behar inoren laguntzarik hori egiteko.
- Nik maiz pentsatzen aditzaren saihesbide hauek ikasleei asko gustatuko.
- Pentsa alargundu bat ezin izan urosa.
- Zeuk ere laster ikusiko mundua ez izan karratua.

## 8) GALDERA

- «Al» partikulak galdera argi adierazten du. Beraz, aditz jokaturia ezabatuz, argitasunik ez da galtzen.

- Ikusten al hori?
- Aizu! Egingo al zuk mesede txiki bat niri?
- Ikusi al zuek gure amaren auto berria?
- Izan al zuek inoiz Parisen?
- Pentsatzen al zuk lanik egin gabe bizitzea?
- Hartuko al guk kafetxo bana, hizketaldi bat eginez?
- Ez al zuk hartzen erre usaina?

## 9) EDIN, EZAN = AHAL - EZIN

- Ariketa hauek era askotara egin ditzakezue = Ariketa hauek era askotara egiten ahal zuek.
- Mundu honetan zernahi gertatzen ahal, baina ez hainbestekorik.
- Baldin zeuk nahi, zernahi egiten ahal.
- Nik ez jasaten ahal - ezin jasan erretzailerik inguruan.
- Gauzak era askotara ikusten ahal, begien arabera.
- Baldin zeuk benetan nahi, mirariak egiten ahalko / egin ahalko.

## 10) AGINDUA

Bigarren pertsonen jokaera, analogiaz, pertsona guztiei aplikatu.

- Izan gu lagun eta hor konpon mundua.
- Txapela buruan, ibil gu munduan.
- Ibil guztiak kontuz, baina argi gu ere guztiakin.
- Segi guk aurrera, eta etor besteak, nahi badute.

## V) IZ - EIZ LAGUNTZAILEAK

Aditz laguntzaile bat, beharrezko ez dakit, baina «laguntzaile» handia izango da. Hori bai. Ahalik sinpleena. Hona bera:

«Izan» aditzaren erroa: IZ.

Alde batetik, aditz garrantzitsuena den «izan» jokatzuz, eta bestetik, orainaldiko laguntzaile eginez. IZ adizki bakarra, nor-nori-nor guztientzat.

- Ni, hi, zu, hura, gu, zu, zuek, haiek etorri-etortzen-etorriko IZ.
- Nik, hik, zuk, hark, guk, zuek, haiek ekarri - ekartzen ekarriko IZ.

Iraganeko laguntzailea: EIZ. Nor-nori-nor guztientzat.

- Ni, hi, zu, hura, gu, zu, zuek, haiek etorri-etortzen-etorriko EIZ.
- Nik, hik, hark, guk, zuk, zuek, haiek ekarri-ekartzen-ekarriko EIZ.

«Nori» eta plural guztiak barne.

- Nik haiei, zuek niri ... gezurra esan IZ - EIZ.
- Nik haiei, zuek niri ... gezur handiak esan IZ - EIZ.

Aditzaren atzizki-aurrizkiak: LA, LAKO, LAKOAN, NEAN, BAIT, BA. Hobe aparte idatzita, partikulak bezala. Elkarketak fenomeno ezberdinak eta, sarritan, despistagarriak sortzen ditu.

- Ni jaio eiz nean.
- Nik uste fenomeno arraroegiak gertatzen iz la.
- Ez iz zorionik, ez ba iz zorigaitzik.
- Nik ez pentsatzen ezer, ez bait iz zer pentsaturik.

## VI) ONDORIOA: KE

KE atzizkia + aditz erroa edo partizipioa, nor-nori-nor guztientzat.

- Nik, zuk, hark, haiek ... esanKE.

Alegia: Esango nuke, luke, zenuke, lukete ...

- Ni, zu, hura, haiek ... ibilKE.

Alegia: Ibiliko nintzateke, litzateke, zinateke, lirateke ...

Nori eta plural guztiak barne.

- Nik, zuk, hark, haiek ... guri, zuri, haiei ... izugarriak esanKE.

- Ni, zu, hura, haiek ... guri, zuri, haiei ... gaizki etorKE.

- Baldin zuk nahi, gu pozik joanKE zurekin noranahi.

## VII) ERLATIBOA

Euskararen syntaxian, zailena ez dakit, baina konplexuena, seguruenik, erlatiboa izan daiteke. Aditz jokatua saihesteko kasuan ere bai.

### **Murriztailea**

1. Gaztelaniazko «lo que» eta beste hizkuntzetako ordainak.

- Zuk zer agintzen - agindu, nik horixe egingo.
- Zuek zer eskatu, guk berehala ekarriko.
- Zuek guri zertzuk esan, guri bost ardura.
- Zuk nitaz zer pentsatu gutxi axola, baina zu horrelakoa izateak ni asko beldurtzen.

2. PARTIZIPIOA

- Nik pentsatu planean.
- Iragan besta biharamunean.
- Lurrak sortu bizia guk hondatzen ahal.
- Zuk proposatu gaia astiz ikertuko guk.
- Haurtzaroan jasan esperientziek hil arte guri jarraitzen.

Hemen bada errotua TAKO atzizkia. Iragana zuzenki eta oraina ere adieraz dezakeena.

- Nik pentsatutako planean.
- Nik emandako arrazoiei ez egin jaramon handiegirik.
- Ni jaiotako egunean mundua asko aldatu eiz.

3. PARTIZIPIOAREN HEDAPEN ANALOGOIA

Partizipioan edo ekintza burutuan zuzena eta laburra den erlatiboa zergatik ez aplikatu ekintza burutu gabean ere?

Oraina:

- Nik pentsatzen planean.
- Zuk ematen argudioek gaur ez balio ezer.
- Norberak bizitzen sentimenduek ezin besteek indar berdinez sentitu.

Geroa:

- Guk laster biziko munduak ez ukanen oraingoaren antzik.
- Geroan gertatuko gaitzek orain ere mintzen ahal.

Geroaldian, bada lehendik ere errotua T(Z)EKO atzizkia.

- Geroan gertatzeko gaitzek orain ere mintzen ahal.
- Zuk esateko guztiek funts berdintsua izango gero ere.
- Guk ikusteko guztiak jada ikusiak iz.
- Guk egiteko guztia apenas izango berria.

#### 4. EN

Erlatibo murriztailea adierazten duen N aditz-atzizkiak, partikula bihurtuz gero, EN beharko luke.

- Zuek egin (iz) en guztia ez iz besterik itxura bat baizik.
- Nik ikusten (iz) en guztia ispilatze bat ote?
- Guk egingo (iz) en apurra ez izango nahikoa, erronka hori irabazteko.

Partikula hori deklinagarri bihurtzeak abantaila handiak dakartza: En, ena, enak, enek, enei, enekin ...

- Ordua baino lehenago etorri (iz) enak egon hemen apur batean.
- Garaiz iristen enek bakarrik izango parte hartzeko aukera.
- Ez konta joan eiz en aukerak.
- Neure moduan bizi iz enekin bakarrik konpontzen (iz) ni ondo.



## Ez-murriztailea

### 1. APOSIZIOA

Partizipioa edo ekintza burutua

- Aurtengo urtea, gatazka handietan abiatua, azkenean ez gertatu hain zorigaitzeko.
- Arrazoi horrek ere, zuk enfasi osoz esanak, beste iritzi batzuen balorapena beharko.

Geroa

- Etorkizuna, laster etortzekoa behintzat, nahiko ondo ikusten nik.
- Kanpotik etortzekoek ere eskubide berdinak behar.
- Etorriak eta etortzekoak.

Eta zergatik ez, analogiaz, «etortzenak»? Hots, «etortzen» deklinatuz «etorri» bezala?

- Etorriak, etortzenak eta etortzekoak.
- Etorriei, etortzenei eta etortzekoei.

Gorago esan bezala, EN, ENA, ENAK, ENEK, ENARI, ENEI ...  
Deklinabide osoa.

### 2) ZEIN, ZEINA, ZEINEK ...

Baliabide hau lehendik ere aski errotua da, eta tradizio handikoa, nahiz zirkulu batzuetan ez gehiegi onartua.

- Hori ez iz platonismoa baizik, zeinak errealitatea ideia soil bihurtzen.
- Hori uste iz politikariek, zeinek hitz bakoitzean bi gezur esaten.

Amaitu da «saihesbidea». Ongi etorri autopistara!

\*  
\*\*

## PERPAUS ELKARTUETAN

Nik uste aditzaren saihesbide hauek ikasleei asko gustatuko, baldin ez gertatzen irakasleei ausardia falta izatea euskal aditzaren zailtasunak gainditzeko. Zeren hemen, hitz egin orduan, praktikak agintzen zerk balio eta zerk ez balio. Eta, noski, ni ziur iz ezen ez egongo ikaslerik, erraztasunari muzin egitekorik, baldin irakaslea bera ez saiatzen aukera berriak errefusatzan.

Eta orain nik zuei ipuin bat kontatuko, non gertatzen iz ezen, behinola, Otxandioko basozain batek, «Hamalau» izenekoak, pentsatu eiz mundu-bira bat egitea. «Hamalau» ezizena ukan, zeren zernahi egiten ahal hamalauarren ahaleginean. Bete bere zakutoa janari ugariz eta beharrezko tresna txiki batzuez, eta hor abiatu eiz Otxandion zehar, Anbotoren gerizari jarraituz.

Bat-batean, hara non ikusten erbi bat beraganantz etortzen, eta albotik tximistan pasatzen. Eta hara non berehala erreparatzen beste gizon bati, erbiaren atzetik ziztu bizian, hanka bakarrean. Hamalauk gizona geldiarazi eta hots egin eiz: «To, to! Geldi, geldi! Zer egiten ari hi?». Lasterkariak erantzun: «Erbia harrapatzen». Hamalau erabat harritu eiz. «Erbia harrapatzen, hanka bakarrean?». Basozainak erantzun: «Bai, zeren biek, nik hura pasatzen». Une hartan, Hamalauk berekiko pentsatu eiz ezen gizon hura lagun ona izaten ahal, berarekin mundu-bira egiteko, eta esan eiz: «Aizak! Ni honela eta honela ari hemen ibiltari, eta nahi al hik neurekin etorri munduari bira bat ematera?». Erbi harrapatzaileak erantzun: «Ba, kasik bai, zeren erbiak errazegi harrapatzen aspertua iz ni, eta ea munduan zehar piztia bizkorragoak aurkitzen guk». Eta hala, Hamalauk eta erbizaleak, biek elkarrekin bidean aurrera jarraitu eiz.

Hartan, biek gizon bat ikusi eiz soro batean luze, belarri bat lurrari atxikita. Hamalauk galdetzen: «Aizak! Zer egiten hik hor, belarria lurrera josita?». Gizonak erantzun: «Atzo artoa erein nik eta orain hemen ari haren ernea entzuten». Hamalauk orduan erbizaleari esan eiz: «Arraioa! Artoaren ernea entzun? Hauxe ere lagun ona izaten ahal guretzat». Eta nekazariari esan eiz: «Aizak! Honela eta honela ari gu ibiltari. Nahi al hik geurekin etorri, munduari bira bat ematera?».

Ipuinak luze jarraitzen du.

Orain, beste testu luzeago bat erantsiko dut, bi erregistroak paraleloan dituela. *Anton Berendia* izeneko kontakizuna.

## ANTON BERENDIA

(*Saihesbidetik*)

### I

Anton Berendia txuleta-hezurra esku biekin lehiaz aho-soinutzen ari eiz la, katu nabar bati erreparatu ezker alboan, berari begira. Ez hark pentsatu ezen begirada huraxe izango egunaren azken erreferentzia, gerora berari nekez ezabatuko ena. Katuak etor berri irudi, baldin aspalditik han ez izan. Edo nork jakin zenbat aldiz joana eta itzulia, zeren Anton Berendiaren hasierako jangaleari asko kostatzen inguruaren oharmenera zabaltzea.

Hezuraren alde bateranzko tirakada eutsian, begiak zain temoso baten kontra oso xeblebre ezkeltzen eiz la, katua mahai-hankatik metro batera nabaritu. Beste alderantz tiratzean –hezurra geldi eta hortzek korri–, ohartu eiz jantokia mahaiz eta aulkiz beterik eiz la. Lagun batzuk ere ba eiz han, distantzia zainduen arabera banatuak. Bikote bat edo beste, eta banako batzuk han-hemen. Atzeko aldean, euskaraz ala erdaraz ari ote jabetu ezineko marmarioa entzuten hark.

## ANTON BERENDIA

(*Hizkuntza arkaikoan*)

### I

Anton Berendia txuleta-hezurra esku biekin lehiaz aho-soinutzen ari zela, katu nabar bati erreparatu zion ezker alboan, berari begira. Ez zuen pentsatu begirada huraxe izango zela egunaren azken erreferentzia, gerora nekez ezabatuko zitzaiona. Katuak etor berri zirudien, aspalditik han ez bazegoen. Edo nork jakin zenbat aldiz joana eta itzulia, Anton Berendiaren hasierako jangaleari asko kostatzen baitzitzaion inguruaren oharmenera zabaltzea.

Hezuraren alde bateranzko tirakada eutsian, begiak zain temoso baten kontra oso xeblebre ezkeltzen zirela, katua mahai-hankatik metro batera nabaritu zuen. Beste alderantz tiratu zuenean –hezurra geldi eta hortzek korri–, jantokia mahaiz eta aulkiz beterik zegoela ohartu zen. Lagun batzuk ere baziren, distantzia zainduen arabera banatuak. Bikote bat edo beste, eta banako batzuk han-hemen. Atzeko aldean, euskaraz ala erdaraz ari ziren jabetu ezineko marmarioa entzuten zuen.

<p>Aurrez eta jantokiaren buruan, txuleta hezurraren erdigunetik, sukaldeko leiho handi errektangularra ikusten hark. Honen bi gortina gorri eta lasaien erdiko irekidura piramidaletik, sukala-andrearen aurpegi lantsua eta orrazkera biribila agertzen eiz tarteka. Eta mahai arteetan, ekartzen, eramaten, galdetzen, soineko hori-zuri argizko neskame batek hanka biko irribarrearen joan-etorria iruditzen. Kanpoan gaua eiz, eta jantokiko argia bilkor eta gozo gertatzeko moduan estudiatua eiz, toki merkeetako transparentzietatik at.</p> <p>Hezurra platerean uztean, artean multzotxo burudun bat baizik ez eiz en katua mugitu eiz, une harexen zain egona, eta bi pauso aurrera eman, bere begiak Anton Berendiaren begiradara arretaz, nahiz isatsak axola gabe segitzen hari. Antonek ogi mutur bat bota katuari, eta hau, isatsa tente, gauza inportante bat harrapatzera lez abiatu eiz. Usnatuz batera, Anton Berendiarengana jaso eiz burua, «hau al zure borondatea?» aurpegiratuz. Antonek plateroko hondakinetatik gizen zatitxo bat bota eiz hari mahaiaz beste aldera, lagun berria horma aldetik bistarago irteteko. Katua janarirantz abiatu eiz, ez aurrekoan bezain gogotsu, bide batez isatsarekin aulki-hankari eta Antonen berna bati neurriak kurioso hartuz. Mihiaren puntatxoarekin ez heldu, bai heldu</p>	<p>Aurrez eta jantokiaren buruan, txuleta hezurraren erdigunetik, sukaldeko leiho handi errektangularra zekusan. Honen bi gortina gorri eta lasaien erdiko irekidura piramidaletik, sukala-andrearen aurpegi lantsua eta orrazkera biribila agertzen ziren tarteka. Eta mahai arteetan, ekartzen, eramaten, galdetzen, soineko hori-zuri argizko neskame batek hanka biko irribarrearen joan-etorria zirudien. Kanpoan gaua zen, eta jantokiko argia bilkor eta gozo gertatzeko moduan estudiaturik zegoen, toki merkeetako transparentzietatik at.</p> <p>Hezurra platerean uztean, artean multzotxo burudun bat besterik ez zen katua mugitu egin zen, une harexen zain egona, nonbait, eta bi pauso aurrera eman zituen, bere begiak Anton Berendiaren begiradara arretaz, isatsak axola gabe segitzen bazion ere. Antonek ogi mutur bat bota zion, eta katua, isatsa tente, gauza inportante bat harrapatzera lez abiatu zen. Usnatuz batera, Anton Berendiarengana jaso zuen burua, «hau al da zure borondatea?» aurpegiratuz. Antonek plateroko hondakinetatik gizen zatitxo bat bota zion mahaiaz beste aldera, lagun berria horma aldetik bistarago atera zedin. Katua janarirantz abiatu zen, ez aurrekoan bezain gogotsu, bide batez isatsarekin aulki-hankari eta Antonen berna bati neurriak kurioso hartuz. Mihiaren</p>
---	---

<p>batzuk eginik, gizen zatia bertan utzi eta mahaiperantz egin eiz, Anton Berendiari begiratzeko motiboak galdutzat emanik. Katua ez bide eiz hain kexu ere, zeren bere ukitze adagiosoa berna artean ari, 8 formako ibilera ondo ikasian. Katuaren buruari, Antonen zango bata jiratzean, pena bezala nabari eiz isatsa beste zangoan uzteaz.</p> <p>– Laztan guran ala jolas guran? – esan eiz Anton Berendiak, esku ezkerra luzatu eta hatzekin katuari deituz. Laster sentitu eiz haren kilikili xuabea eskuan, neskameak beste aldetik «postrerik?» galdetzen eiz la.</p> <p>– Ez guk jakin zer gustatuko guri – erantzun Antonek zalantza begizabalez.</p> <p>– Baldin zuk horren gustua egin nahi, nik pazientzia ekarriko – lagundu eiz neskameak, auziari ertz alaitik heltzeko prest.</p> <p>– Ekar bera orduan, flan bat lagun iz la.</p> <p>Neskamea, «ea, ba!» esanda, inpresio tirakor bat bezala aldendu eiz. Anton Berendia, jantokiko nobedade urriei begirada eseki bat jaurtirik, bere katuarengantz okertu eiz.</p> <p>– Ez iz harritzekoa tripa horrekin ogirik nahi ez izatea –esan Antonek katuari, ahurra haren bizkarraren forman uztaituz.</p>	<p>puntatxoarekin ez heldu, bai heldu batzuk eginik, gizen zatia bertan utzi eta mahaiperantz egin zuen, Anton Berendiari begiratzeko motiboak galdutzat emanik. Ez bide zen hain kexu ere, katuaren ukitze adagiosoa berna artean ari baitzen, 8 formako ibilera ondo ikasian. Katuaren buruak Antonen zango bata jiratzean, pena bezala nabari zitzaion isatsa beste zangoan uzteaz.</p> <p>– Laztan guran ala jolas guran? – esan zuen Anton Berendiak, esku ezkerra luzatu eta hatzekin katuari deituz. Laster sentitu zuen haren kilikili xuabea eskuan, neskameak beste aldetik «postrerik?» galdetzen ziola.</p> <p>– Ez dakigu, ba, zer gustatuko zaigun –erantzun zuen Antonek zalantza begizabalez.</p> <p>– Horren gustua egin nahi baduzu, pazientzia ekarriko dizut –lagundu zion neskameak, auziari ertz alaitik heltzeko prest.</p> <p>– Ekar bera orduan, flan bat lagun duela.</p> <p>Neskamea, «ea, ba!» esanda, inpresio tirakor bat bezala aldendu zen. Anton Berendia, jantokiko nobedade urriei begirada eseki bat jaurtirik, bere katuarengantz okertu zen.</p> <p>– Ez dun harritzekoa tripa horrekin ogirik nahi ez izatea –esan zion katuari, ahurra haren bizkarraren forman uztaituz.</p>
---	---

Ez eiz oso katu lerdena. argal eta tripan-di, nabardurak txokolate merke kolorekoak, eta argiuneak ere hautsetan pasaturik bezala. Bistan eiz ezen umegintza hurbil ukan, eta barkatzekoa itxura lorrindu hura. Anton Berendiak, haren on guran ibiltzeko obligaziorik ez arren, natura sortzailearekin lagun gogoz, gihar-hondar bat bota eiz hari, gizena ondo apartaturik. Katemeak, usnatzetik irenstera, bibotea mugitzeko astirik ere ez hartu. Antonengana gozotasun eskalez itzulirik, miau mutu bat egin eiz, adieraziz hondar haren bidetik gehiagorako ere ba eiz la tokia.

– A! Jatetxean ere onetik urri, ezton? –esanik Antonek ere mutuki, beste zatitxo bat opatu hari, hondakinak lau bider azterturik. Oraingoan lasaiago eta jakinkiago jan eiz katuak, ondoren zati berriak etor ustean, burua luze eta oker-oker, belarri batekin lurraren errotazioa entzunez. «Beste txuleta txiki bat eskatuko al guk?».

Baina flana honantz ageri eiz, eta neskameak, hura mahaian utzita, galdetu: «Kaferik hartuko al ‘zuek’?». Antonek baietz, berak ere irribarreari kakotxak jarritz.

– Bai lagun bikaina topatu zuk! – neskameak.  
– Berak topatu ni. Ume bat emango omen niri.

Ez zen oso katu lerdena. Argal eta tripan-di, nabardurak txokolate merke kolorekoak, eta argiuneak ere hautsetan pasaturik bezala. Bistan zegoen umegintza hurbil zeukala, eta barkatzekoa zen itxura lorrindu hura. Anton Berendiak, haren on guran ibiltzeko obligaziorik ez arren, natura sortzailearekin lagun gogoz, gihar-hondar bat bota zion, gizena ondo apartaturik. Katemeak, usnatzetik irenstera, bibotea mugitzeko astirik ere ez zuen hartu. Antonengana gozotasun eskalez itzulirik, miau mutu bat egin zuen, hondar haren bidetik gehiagorako ere bazela tokia adieraziz.

– A! Jatetxean ere onetik urri, ezton? –esanik Antonek ere mutuki, beste zatitxo bat opatu zion, hondakinak lau bider azterturik. Oraingoan lasaiago eta jakinkiago jan zuen katuak, ondoren zati berriak etorriko zirelakoan, burua luze eta oker-oker, belarri batekin lurraren errotazioa entzuten bezala. «Beste txuleta txiki bat eskatuko al dinagu?».

Baina flana honantz ageri zen, eta neskameak, hura mahaian utzita, galdetu zuen: «Kaferik hartuko al ‘duzue’?». Antonek baietz, berak ere irribarreari kakotxak jarritz.

– Bai lagun bikaina topatu duzula! – neskameak.  
– Berak topatu nau. Ume bat emango ei dit.

– Ume bat? –barre egin eiz neskak.  
Eta badaezpada, «izan zorte on»  
opaturik, bere irribarre maltzurtua  
sukaldera eramán eiz.

– Joan iz gure puska gozoak,  
laguntxo! –esan eiz Antonek  
katuari. Hezurra osorik emateko  
ere tentaturik egona eiz, baina ez  
ongi iritzi, jantoki guztian arrastaka  
erabiliko eiz en erreparoz–. Zenbat  
ume egin behar hik? Ea, konta guk.

Katua geldi-geldi eiz, azkura  
gozoan bildurik eta lozorroaren  
preludiozko zurrungatxoan  
gorputza eskuaren kontrara  
ondulatuz. Bat-batean, zart,  
erpekada bat, karranpada bezain  
azkarra. Ilajea harro-harro, eta  
isatsaren bihurtuetan haserre  
guztia jarririk, bere tripa handia  
zabukatzuz joan eiz, joanago eta  
uzki zimurra ageriago, beharbada  
apropos. Anton Berendiak bere  
esku gaina haztatu eiz ezarian,  
lasaiago geldituz inork ezer sumatu  
ez eiz lako. Katua irteerako atearen  
ondoko mahaiaren azpian kukutu  
eiz, eta handik begiratzen zulo  
gorizko begiekin, isats baregaitzak  
buelako hautsak garbitzen eiz la.

Anton Berendiari, sustoa pasatu  
ahala, barregura ematen plantakera  
hostil hark, zeren, katuen  
susmogaiztasun guztiak jota ere,  
ezin eiz atzeman erreakzio  
hartarako motiboa. Tabu-guneren

– Ume bat? –barre egin zuen  
neskak. Eta badaezpada, «zorte ona  
izan dezazuela» opaturik, bere  
irribarre maltzurtua sukaldera  
eramán zuen.

– Joan ditun gure puska gozoak,  
laguntxo! –esan zion Antonek  
katuari. Hezurra osorik emateko  
ere tentaturik egona zen, baina ez  
zion iritzi, jantoki guztian arrastaka  
erabiliko zuen erreparoz–. Zenbat  
ume egin behar ditun? Ea, konta  
ditzagun.

Katua geldi-geldi zegoen, azkura  
gozoan bildurik eta lozorroaren  
preludiozko zurrungatxoan  
gorputza eskuaren kontrara  
ondulatuz. Bat-batean, zart,  
erpekada bat, karranpada bezain  
azkarra. Ilajea harro-harro eta  
isatsaren bihurtuetan haserre  
guztia jarririk, bere tripa handia  
zabukatzuz joan zen, joanago eta  
uzki zimurra ageriago, beharbada  
apropos. Anton Berendiak esku  
gaina haztatu zuen ezarian,  
lasaiago geldituz inork ezer sumatu  
ez zuelako. Katua irteerako atearen  
ondoko mahaiaren azpian kukutu  
zen, eta handik begiratzen zuen  
zulo gorizko begiekin, isats  
baregaitzak bueltako hautsak  
garbitzen zituela.

Anton Berendiari, sustoa pasatu  
ahala, barregura ematen zion  
plantakera hostile hark, zeren,  
katuen susmogaiztasun guztiak jota  
ere, ezin baitzuen erreakzio  
hartarako motiboa atzeman. Tabu-

bat ukitu ote? Emea eta umedun, agian naturak arreta bereziak jarri izan hari, baina, hala ere, ez ikusten proportzio naturalik.

– Koparik? –galdetu eiz neskameak, kafea uztean.

– Kafeak ez ukan graziarik, bakarrean –erantzun Antonek etsipen airez.

– Ba eiz, ba, zuk laguna – neskameak, muturra poliki okertuz.

– Haserretu iz gu –Antonek, polikiago zorrotzuz–. Ikusten han?

– Orain umeak Parisen agindu beharko zuk.

Neskamea barreka joan eiz.

Antonek hain kafe gozatsurik ez eiz aspaldi hartu, katuari adi-adi, zeinak ez begirik kentzen. «Ea nor izan gehiago!». Anton Berendia ez eiz gauza gero eta fosforeszenteago ikusten eiz en begirada hari immutatu gabe eusteko. «Kontua, mesedez!». Eta barrerik ere ezin egin, gutxi izan arren, jendea bait eiz inguruan. «Tori!». Irribarre bakarrik, baina geroz irribarre gorriago eta zinutsuagoa, geroz piztikiago oszilatzen bait eiz katuak isatsa, puntatxoa sugeburua bezala tentetuz. «Eskerrik asko!».

Bueltak uztean, neskameak «ederki!», eta Anton Berendia, neskaren irribarre pilatuari keinu batez erantzunik, katuaganantz biratu eiz. Han jarraitzen tinko mahaiepeko esfinge txikiak, isatsa aparte erabiliz bezala. Anton Berendiak hain itxura imminentea

guneren bat ukitu ote zuen? Emea eta umedun, baliteke naturak arreta bereziak jarri izana, baina ez zuen, hala ere, proportzio naturalik ikusten.

– Koparik? –galdetu zuen neskameak, kafea uztean.

– Kafeak ez dauka graziarik, bakarrean –erantzun zuen Antonek etsipen airez.

– Bazenuen, ba, laguna – neskameak, muturra poliki okertuz.

– Haserretu egin gara –Antonek, polikiago zorrotzuz–. Ikusten han?

– Orain umeak Parisen agindu beharko dituzu.

Neskamea barreka joan zen.

Antonek hain kafe gozatsurik ez zuen aspaldi hartu, katuari adi-adi, zeinak ez baitzuen begirik kentzen. «Ea nor den gehiago!». Anton Berendia ez zen gauza gero eta fosforeszenteago zekusan begirada hari immutatu gabe eusteko. «Kontua, mesedez!». Eta barrerik ere ezin egin, gutxi izan arren, jendea baitzegoen inguruan. «Tori!». Irribarre bakarrik, baina geroz irribarre gorriago eta zinutsuagoa, geroz piztikiago oszilatzen baitzuen katuak isatsa, puntatxoa sugeburua bezala tentetuz. «Eskerrik asko!».

Bueltak uztean, neskameak «ederki!», eta Anton Berendia, neskaren irribarre pilatuari keinu batez erantzunik, katuaganantz biratu zen. Han jarraitzen zuen tinko mahaiepeko esfinge txikiak, isatsa aparte balerabil lez. Anton Berendiak hain



hartu eiz hari, non –«kapaz hori aurpegira saltatzeko!»– komunera jaiki eiz, katuak milika nahian utzitako koipe kutsuak urari ematera.

Bueltan, katurik ez mahaiepean. «On egin!» –beste afaldarrei, eta hauek, «eskerrik asko!». Baina Anton Berendiak kanporantz hartzean –«izan gau on», «berdin zeuk ere»–, han agertu katua ate ondoan. Anton Berendiak disimuluan geralditxo bat egin eiz. «Oraintxe probatuko guk elkar». Baina atea bi pausotara edukitzean, katua mahai bat urrunago atzeratu eiz, bere kanika-begi haluzinanteak aurrez beti. Kanika haiek, atea kanpotik astiro-astiro ixtean, begiradaren azken zirrituraino jarraitu eiz Anton Berendiari.

itxura imminentea hartu zion, non –«kapaz duk hori aurpegira saltatzeko!»– komunera jaiki baitzen, katuak milika nahian utzitako koipe kutsuak urari ematera.

Bueltan, katurik ez zegoen mahaiepean. «On egin!» –beste afaldarrei, eta hauek, «eskerrik asko!». Baina Anton Berendiak kanporantz hartzean –«izan gau on», «berdin zeuk ere»–, han agertu zen katua ate ondoan. Anton Berendiak disimuluan geralditxo bat egin zuen. «Oraintxe probatuko dinagu elkar». Baina atea bi pausotara zeukanean, katua mahai bat urrunago atzeratu zen, bere kanika-begi haluzinanteak aurrez beti. Kanika haiek, atea kanpotik astiro-astiro ixtean, begiradaren azken zirrituraino jarraitu zioten.

## II

Neskameak joan-etorri bakoitzean gauza bat mahairatzen eiz, atea beti zabalik utziz. Anton Berendia pentsatzen ariz arrazoia zertan ote, barra aurreko dozena bat hanka irregularki lerrotuen artetik, bi katu txiki elkarri iheska agertu eiz. Anton Berendiak irribarrez hartu eiz txuleta etorri bitarteko entretenigarri buztantsu hura. Katu txinpartakumeek behin eskuinerantz, behin ezkererantz zeharkatzen atearen ikusmira, arerolito ileztatuak lez, lantzean orpo nagi baten kontra iraulkatuz, urdail erdi beteek eta adin betegarriek planeatzen existentzia jostarian.

Anton Berendiari bezperako kateme aiherkorrak ere halakoxe umeak egingo eiz en pentsamenduak begirada esku gainera ekarri, zeinean ez eiz marka modurik ikusten, erpekada moteldu baten marratxo zuriskak besterik. Hauek, noski, erpeak zabal askaturik etorri izatera, oraingo azkura labaina baino lorratz sakonagoa utzi izango eiz.

Bat-batean, oin hotsak. Hanka guztiak kanpora, eta jantokia hutsik geratu eiz, salbu gizon erreskada bat mahai batean, bizkarra horman bermatuz. Anton Berendiak zorua zirku-zelai laukitu bat lez ikusi eiz, artistak agertzeko prest. Baina

## II

Neskameak joan-etorri bakoitzean gauza bat mahairatzen zuen, atea beti zabalik utziz. Anton Berendia pentsatzen ari zela arrazoia zertan ote zetzan, barra aurreko dozena bat hanka irregularki lerrotuen artetik, bi katu txiki elkarri iheska agertu ziren. Anton Berendiak irribarrez hartu zuen txuleta etorri bitarteko entretenigarri buztantsu hura. Katu txinpartakumeek behin eskuinerantz, behin ezkererantz zeharkatzen zuten atearen ikusmira, arerolito ileztatuak lez, lantzean orpo nagi baten kontra iraulkatuz, urdail erdi beteek eta adin betegarriek planeatzen zieten existentzia jostarian.

Anton Berendiari bezperako kateme aiherkorrak ere halakoxe umeak egingo zituelako pentsamenduak begirada esku gainera ekarri zion, zeinean ez baitzuen marka modurik ikusten, erpekada moteldu baten marratxo zuriskak besterik. Hauek, noski, erpeak zabal askaturik etorri izatera, oraingo azkura labaina baino lorratz sakonagoa utzi izango zioten. Bat-batean, oin hotsak ziren. Hanka guztiak kanpora, eta jantokia hutsik geratu zen, salbu gizon erreskada bat mahai batean, bizkarra horman bermatuz. Anton Berendiak zorua zirku-zelai laukitu bat lez ikusi zuen, artistak

<p>katutxoak, katakumeak esateko baino katuago eta katuak esateko baino umeago, zokoren batean entreteniturik ibiltzen han, hautsak batzen edo lorontziren bat konpontzen.</p> <p>– Baldin gutxiegi eginda egon, esan –abertitu eiz neskame mardulak, txuletaren erretilua mahaian utzirik.</p> <p>– Laster jakingo –erantzun eiz Anton Berendiak, bere sardexkaz eta zerraiztoz okela zati bat, kurrisk karrask, hezurrari kenduz. Lehen mokaduetan ezeren pentsamendurik ez eiz izan, hezur zatiak eta gizenak plater alboan pilatuz joatea besterik. Burua jasotzeko adina lasaitasun hartzean, alderik alde iraulka ikusi eiz katuak, kuerda emaniko matazan lez, eta pentsatu: «Hor ari nire lagunak!». Haserre puntu bat ere ba eiz, zeren haiek ez ari atearen parean, hobeto ikusteko moduan. Sukaldari argal zurizko batek, jantokiaren alboko erretegitik barrarantz «on egin!» esanda pasatzean, zorioneko atea itxi eiz, eta Anton Berendia bere afarian inkomunikaturik gelditu. Sukaldaria laster itzuli eiz bere postura, nahiz beste inor ez egon jantokian. Berriro ere atea itxita utzi hark, une batez doi-doi emanik tartea katu txikiak han ari eiz la erreparatzeko.</p> <p>– Hau laster konponduko guk – pentsatuz, Anton Berendiak ardo</p>	<p>agertzeko prest, baina katutxoak, katakumeak esateko baino katuago eta katuak esateko baino umeago, zokoren batean entreteniturik zebiltzan, hautsak batzen edo lorontziren bat konpontzen.</p> <p>– Gutxiegi eginda badago, esan – abertitu zion neskame mardulak, txuletaren erretilua mahaian utzirik.</p> <p>– Laster jakingo dugu –erantzun zuen Anton Berendiak, bere sardexkaz eta zerraiztoz okela zati bat, kurrisk karrask, hezurrari kenduz. Lehen mokaduetan ezeren pentsamendurik ez zuen izan, hezur zatiak eta gizenak plater alboan pilatuz joatea besterik. Burua jasotzeko adina lasaitasun hartu zuenean, alderik alde iraulka ikusi zituen katuak, kuerda emaniko matazan lez, eta pentsatu zuen: «Hor zebiltzak nire lagunak!». Haserre puntu bat ere bazuen, atearen parean ari ez zirelako, hobeto ikusteko moduan. Sukaldari argal zurizko batek, jantokiaren alboko erretegitik barrarantz «on egin!» esanda pasatzean, zorioneko atea itxi zuen, eta Anton Berendia bere afarian inkomunikaturik gelditu zen. Sukaldaria laster itzuli zen bere postura, nahiz beste inor ez egon jantokian. Berriro ere atea itxita utzi hark, une batez doi-doi emanik katu txikiak han zebiltzala erreparatzeko tartea.</p> <p>– Hau laster konponduko diagu – pentsatuz, Anton Berendiak ardo</p>
---	--

<p>botila klin-klin jo eiz, eta han agertu neskame oparoa, zeinak Antonen deira –«ura, mesedez!»– (edateko asmorik ez), atea berriro zabalik utzi eiz. Horixe izan Antonek behar eiz ena, korronte pixka bat gorabehera. Neskamea pitxar urarekin etortzean, katu txikiak hanka artean ateraino eskoltatu eiz hura, baina handik aurrera jarraitzeko dudana, begi itxika eta buru okerka geratu eiz, erlojuzko edo penduluzko estramundura begira lez.</p> <p>– Bai laguntzaile politak ukan zuek hor! –hots egin eiz Anton Berendiak, neskameak ura mahaian uztean.</p> <p>– Endredatzaileak esan nahiko eiz zuk, pausoan-pausoan traban jartzen bait iz –erantzun neskameak aurpegia beteko irribarrez. Katu txikiak, bata eskuin markotik eta bestea ezkerretik, isatsean poxpoloa sumaturik lez aldendu eiz.</p> <p>– Zorteko iz ni, honelako dibertsiorik ez bait gertatzen parean noiznahi –aitortu eiz Antonek, hark atea zabalik uzten segitzea adierazteko aitzakian.</p> <p>– Baldin horrek zu dibertitzen, egun guztian beste zereginik ez ukan hauek.</p> <p>Joan eiz neskamea, zeinari, atalburua haratuz batera, ostan zain egonik lez, bi katutxoak hanka banatara itzuli eiz, galtzerdiei puntuak hartzera. Halaxe ezkutatu eiz hirurak barra ertzetik, sarritan</p>	<p>botila klin-klin jo zuen, eta han agertu zen neskame oparoa, zeinak Antonen deira –«ura, mesedez!»– (edateko asmorik ez zuen), atea berriro zabalik utzi zuen. Horixe zen Antonek behar zuena, korronte pixka bat gorabehera. Neskamea pitxar urarekin zetorrela, katu txikiak hanka artean ateraino eskoltatu zuten, baina handik aurrera jarraitzeko dudana, begi itxika eta buru okerka geratu ziren, erlojuzko edo penduluzko estramundura begira lez.</p> <p>– Bai laguntzaile politak dituzuela hor! –hots egin zuen Anton Berendiak, neskameak ura mahaian uztean.</p> <p>– Endredatzaileak esan nahiko zenuen, pausoan-pausoan traban jartzen baitira –erantzun zuen neskameak aurpegia beteko irribarrez. Katu txikiak, bata eskuin markotik eta bestea ezkerretik, isatsean poxpoloa sumaturik lez aldendu ziren.</p> <p>– Zorteko nabil, honelako dibertsiorik ez baita noiznahi parean gertatzen –aitortu zuen Antonek, atea zabalik uzten segi zezala adierazteko aitzakian.</p> <p>– Horrek dibertitzen bazaitu, egun guztian beste zereginik ez daukate.</p> <p>Joan zen neskamea, zeinari, atalburua haratuz batera, ostan zain egonik lez, bi katutxoak hanka banatara itzuli zitzaizkion, galtzerdiei puntuak hartzera. Halaxe ezkutatu ziren barra</p>
--	--

<p style="text-align: center;">entseiaturik bezala.</p> <p>Anton Berendiak horma kontrako gizon erreskada aurrez ukan. Baita ipurdi sail bat ere barrara okerturtako bizkar batzuen azpian eta hanka batzuen gainean. Ate-markoak gorputzen ebakera bitxiena emateko moduan kokatua eiz Antonen begirada. Eta hara artista txikiak, putzak aurrean harturik, non bistaratzen berriro. Oraingoan, ate koadroko ikuspegiaren erdi-erdira erori eiz. Eta han ari, tripaz gora eta tripaz behera eta bi hankan, zango eta isats, hain bizkor eta konplexu gabe, non ematen eiz ezen abildade guztiak batera erakustea pentsatu.</p> <p>Anton Berendia, txuleta hezurra esku artean geldi eta begiak katukizunera finko, irribarretik barrera kargatzen ari eiz la, beste neskame bat bistaratu, bizkarrean beherainoko koletaz eta soineko zuriska argia belaun buruetara ezin iritsiz. «Hau ere ukan guk?». Madari potin erdibituak bezalako belarriekin eta aurpegia miniaturan landurik, haren azal horiska beltzaranak argiari tiratzen eiz. Mahaiko gizonek zerbait eskatzeko aitzakiaz berriketa eman bitartean, Antonek atzez ikusten eiz neska, mahai ertzera ukan eiz en eskuen gainera makurtua, izter airosoak eta zankabe freskoak kurbadura arinean jaitsiz berna gozoetan behera, takoi sendoko abarketa</p>	<p style="text-align: center;">ertzetik, sarritan entseiaturik bezala.</p> <p>Anton Berendiak horma kontrako gizon erreskada zeukan aurrez. Baita ipurdi sail bat ere barrara okertutako bizkar batzuen azpian eta hanka batzuen gainean. Ate-markoak gorputzen ebakera bitxiena emateko moduan kokatua zen Antonen begirada. Eta hara artista txikiak, putzak aurrean harturik, non bistaratzen diren berriro. Oraingoan, ate koadroko ikuspegiaren erdi-erdira erori ziren. Eta han ari ziren, tripaz gora eta tripaz behera eta bi hankan, zango eta isats, hain bizkor eta konplexu gabe, non ematen baitzuen abildade guztiak batera erakustea pentsatu zutela.</p> <p>Anton Berendia, txuleta hezurra esku artean geldi eta begiak katukizunera finko, irribarretik barrera kargatzen ari zela, beste neskame bat bistaratu zen, bizkarrean beherainoko koletaz eta soineko zuriska argia belaun buruetara ezin iritsiz. «Hau ere badiagu?». Madari potin erdibituak bezalako belarriekin eta aurpegia miniaturan landurik, haren azal horiska beltzaranak argiari tiratzen zion. Mahaiko gizonek, zerbait eskatzeko aitzakiaz berriketa ematen ziotela, Antonek atzez ikusten zuen neska, mahai ertzera zituen eskuen gainera makurtua, izter airosoak eta zankabe freskoak kurbadura arinean jaisten zirelarik berna gozoetan behera, takoi</p>
--	---

<p style="text-align: center;">zurietaraino.</p> <p>Gizonak, batak zera, besteak lera, berriketa luzatzen ari eiz. Anton Berendiak, belarria zorroztu arren, berbaroa baizik ez jasotzen. Neskameak, erdi pazientziaz, erdi palutik emanez, ezker oina eskuin bernara tolestu eiz, eta belaunalde zabalduan eta soinekoaren ebakeran lauki irregular bat sortu eiz, gonazko geometria malgu bat, katu txikien jolas-markotzat apropos asmatua irudi. Hauek, Antonen pentsamendua atzemanik bezala, berehalaxe hasi eiz lauki hartara ager-gordeka. Anton Berendiari graziarik handiena egin eiz nola, katutxo batak bernen beheko angelura igorik berari begiratu bitartean, bestea mahai-hankan gora ikusten eiz, neskamearen zango artetik. Katuak numero haren bitxitasunaz oharturik, edo Anton Berendiaren arretaz harroturik, ikuskizuna une batean estatiko bihurtu eiz. Agian, Antonen irudimenean finkaturik geratzearen inpresioa besterik ez. Harik eta katu bata zurezko hankatik eta bestea haragizkotik, goiko gona ertza harrapatzeko saiakerak egiten hasi arte.</p> <p style="text-align: center;">– Ka-tu-ak! –oihu egin eiz exageratuki neskameak, gizonen ekinetik libratzeko aitzakia oportunoa aurkituz. Eta koadroa bat-batean deskonposatu eiz.</p> <p>– Nahikoa egin iz zuek! –hots egin eiz berekiko Anton Berendiak,</p>	<p style="text-align: center;">sendoko abarketa zurietaraino.</p> <p>Gizonak, batak zera, besteak lera, berriketa luzatzen ari ziren. Anton Berendiak, belarria zorroztu arren, berbaroa baino ez zuen jasotzen. Neskameak, erdi pazientziaz, erdi palutik emanez, ezker oina eskuin bernara tolestu zuen, eta belaunalde zabalduan eta soinekoaren ebakeran lauki irregular bat sortu zen, gonazko geometria malgu bat, katu txikien jolas-markotzat apropos asmatua zirudiena. Hauek, Antonen pentsamendua atzemanik bezala, berehalaxe hasi ziren lauki hartara ager-gordeka. Anton Berendiari graziarik handiena egin ziona zen nola, katutxo batak bernen beheko angelura igorik begiratzen zion bitartean, bestea mahai hankan gora ikusten zuen, neskamearen zango artetik. Katuak numero haren bitxitasunaz oharturik, edo Anton Berendiaren arretaz harroturik, ikuskizuna une batean estatiko bihurtu zen. Agian, Antonen irudimenean finkaturik geratzearen inpresioa besterik ez. Harik eta katu bata zurezko hankatik eta bestea haragizkotik, goiko gona ertza harrapatzeko saiakerak egiten hasi arte.</p> <p style="text-align: center;">– Ka-tu-ak! –oihu egin zuen exageratuki neskameak, gizonen ekinetik libratzeko aitzakia oportunoa aurkituz. Eta koadroa bat-batean deskonposatu zen.</p> <p>– Nahikoa egin duzue! –hots egin zuen berekiko Anton Berendiak,</p>
---	--

<p>txuleta hezurrari hortz artean martxa emanaz.</p> <p>Neskamea barrarantz eta katuak sekula jakiterik ez en zokorantz ezkutatu eiz. Ez luzerako, zeren biak atean plantatu eiz berriro, mozolokumeen argitako aurpegiekin, disimuluan elkar besaka, jantoki guztian bakarrik eiz en morroi hura nor izan ahal ezin kalkulatuz. Antonek hezurra erakutsi eiz haiei, eta katutxoek buruak okertzen hezurraren balantzara, baina apenas interesatzen hurbiltzera arriskatzeko beste. Antonek hatz puntetan gizen hondakin luzanga bat zintzilik opatu eiz, eta horrek grazia handiagoa egin haiei, nonbait, aurpegiak elkarri milikatzeko plantak egin bait eiz. Antonek astintzen zamau ertzak, ezpain-zapia zoruan tatarrez, zapata kordelak eta harrapatzen eiz en punta guztiak, baina haiek atalburutik aurrera pasarazteko engainurik ez eiz, nahiz euren distantziatik bai pozik begiratu. Harik eta zortzi-hamar neska- mutilen koadrila bat, erdi euskaraz, erdi erdaraz, marmario trinkoan sartzen hasi arte.</p> <p>Anton Berendiak, arteko bakartasun animatua galdutzat emanik, postreari paso egin eta kafea barran hartzea pentsatu eiz, katuzko artista pare hurragotik ikusteko esperantzan. Baita neskame berria ere, baldin kontua berari eskatzeko erarik izan.</p>	<p>txuleta hezurrari hortz artean martxa emanaz.</p> <p>Neskamea barrarantz eta katuak sekula jakiterik ez den zokorantz ezkututzen ziren. Ez luzerako, zeren biak atean plantatu ziren berriro, mozolokumeen argitako aurpegiekin, disimuluan elkar besaka, jantoki guztian bakarrik zegoen morroi hura nor izan zitekeen ezin kalkulatuz. Antonek hezurra erakutsi zien, eta katutxoek buruak okertzen zituzten hezurraren balantzara, baina apenas interesatzen zitzairen hurbiltzera arriskatzeko beste. Antonek hatz puntetan gizen hondakin luzanga bat zintzilik opatu zien, eta horrek grazia handiagoa egin zien, nonbait, aurpegiak elkarri milikatzeko plantak egin baitzitezuten. Antonek astintzen zizkien zamau ertzak, ezpain-zapia zoruan tatarrez, zapata kordelak eta harrapatzen zituen punta guztiak, baina haiek atalburutik aurrera pasarazteko engainurik ez zegoen, euren distantziatik pozik begiratzen bazuten ere. Harik eta zortzi-hamar neska-mutilen koadrila bat, erdi euskaraz, erdi erdaraz, marmario trinkoan sartzen hasi zen arte.</p> <p>Anton Berendiak, arteko bakartasun animatua galdutzat emanik, postreari paso egin eta kafea barran hartzea pentsatu zuen, katuzko artista pare hurragotik ikusteko esperantzan. Baita neskame berria ere, kontua berari eskatzeko erarik bazen. Hartzekoak</p>
--	--

Hartzekoak hartu eta ordaintzekoak ordaindutakoan, neskame bien «eskerrik asko!»-ri eta barrako gizon baten «ondo joan!»-ari «gau on!» erantzun ondoren, mahaiepeko bazter-angeluan muturrak eta paparrak doi-doi ageri eiz en bi katuenganako azken begirada ezin gordez, kanporako ate mailan behaztopo nabarmena egin eiz, katuen erremuskak eta mahaiko gizonen isoak eraginez.

– Katuekin zerbait okerra gertatu behar al iz beti? –galdetu eiz bere buruari ilunean, bezperako erpekadaren gomutak esku gainean hatz eginarazten eiz la.

hartu eta ordaintzekoak ordaindutakoan, neskame bien «eskerrik asko!»-ri eta barrako gizon baten «ondo joan!»-ari «gau on!» erantzun ondoren, mahaiepeko bazter-angeluan muturrak eta paparrak doi-doi ageri zituzten bi katuenganako azken begirada ezin gordez, kanporako ate mailan behaztopo nabarmena egin zuen, katuen erremuskak eta mahaiko gizonen isoak eraginez.

– Katuekin zerbait okerra gertatu behar al dik beti? –galdetu zion bere buruari ilunean, bezperako erpekadaren gomutak esku gainean hatz eginarazten ziola.



### III

Anton Berendia, bere lanbidezko ibilerak bide, egunero kanpoan afaldu beharraz nekatua eiz. Pentsaturik, ordea, katuen azken aldiko ebentualitateak alde onetik hartzekoak eiz la, berriro ere gustua hartzen hasi, eta berriro ere txuleta eskatzen jarraitu. Jantokiko angelu batean, erretegiak metroko tabikeaz gorakoa banaturik ukan kristaleria koadrotsuz. Bertan, sukaldari izerditsuak okela-ezpal gorria, ertzak gizen zuri mardulez hartua, parrilla gainean eratzan eiz. Belarrietara etortzen en txirtxirketak eta kanpai gailenean gora joaten en ke usaintsuak haren tuak eta esteak abiatu eiz. Hartan, bultotxo bat mugitzen ikusi eiz tximini ondoko apal luzearen gainean, betidaniko sortasun batetik bueltan lez. Kristal-markoei buruzko begirada paraleloan, isatsa ala isla jabegabe bat ote eiz ezin izan bereizi, harik eta bultotxoa, erdirantz etorritz, katu ia artesanal bat bilakatu arte, hain konplexu gabe eta bere ederraren jakile.

Anton Berendia poztu eiz, konpainia hura nola erakarri pentsatzeko akordu gabe. Sukaldariak ez eiz presentzia sar berri haren oharmenik erakusten, zeren bai jakin, distantzia batetik

### III

Anton Berendia, bere lanbidezko ibilerak zirela bide, egunero kanpoan afaldu beharraz nekatua zegoen. Pentsaturik, ordea, katuen azken aldiko ebentualitateak alde onetik hartzekoak zirela, berriro ere gustua hartzen hasi zen, eta berriro ere txuleta eskatzen jarraitu zuen. Jantokiko angelu batean, metroko tabikeaz gorakoa kristaleria koadrotsuz banaturik zeukan erretegiak. Bertan, sukaldari izerditsuak okela-ezpal gorria, ertzak gizen zuri mardulez hartua, parrilla gainean eratzan zuen. Belarrietara zetorren txirtxirketak eta kanpai gailenean gora zihoan ke usaintsuak tuak eta esteak abiatu zizkion. Hartan, bultotxo bat mugitzen ikusi zuen tximini ondoko apal luzearen gainean, betidaniko sortasun batetik bueltan lez. Kristal-markoei buruzko begirada paraleloan, isatsa ala isla jabegabe bat ote zen ezin izan zuen bereizi, harik eta bultotxoa, erdiratuz zetorrela, katu ia artesanal bat bilakatu zen arte, hain konplexu gabe eta bere ederraren jakile.

Anton Berendia poztu zen, konpainia hura nola erakarri pentsatzeko akordu gabe. Sukaldariak ez zuen presentzia sar berri haren oharmenik erakusten, bai baitzekien distantzia batetik

<p>aurrera, hark ez eiz la muturrik arriskatuko erretegiko berotasunera. Edo txingartzara erortzen eiz en tanten ziztaketara, hotsezkoa gehiago berau egiazkoa baino. Anton Berendiak alboz ikusten en katu handioski eseriari ez eiz antzematerik erreketan interesatzen hari, ala keaz handiko lanbrotasunera begira, lurrinaz gozatzen ari. Neskamea erretegian sartzean bakarrik hasi eiz hura apalean ezker-eskuin mugitzen, handik kanpora oinez ahazturik lez. Edo laguntza ala abandonoa eskatu ezin asmatuan. Bat-batean, jauzi bizia egin eiz, sukaldariak neskameari txuleta errea azpileratzean, zeinaren atzetik eta dudatu ere egin gabe, mahairaino jarraitu eiz, etxeko eginkizun jakin bat gehiago bezala.</p> <p>Neskameak «on egin!» erritualez alde egindakoan, katua bertan geratu eiz, eserkerari solemnitaterik indiferente bat emanez. Anton Berendiak hortzen laguntza-tresnak sailean jarri eiz, eta denbora laburrean txuleta hezurra biluzik uzteko martxa eraman. Katua atzeko aldera pasatu eiz –«zaintzen ala ni bigilatzen ari ote hau?»–, eta bera ere aulkiz aldatzeko egon eiz, baldin norbaiten ohartze posiblearen lotsak atzeratu ez izan. Lastima hain katu ederra bide batez ezin kontenplatzea –pentsatzen eiz hozkada bakoitzean–, ahora bidean eiz en okela zatia zoru agerira</p>	<p>aurrera ez zuela muturrik arriskatuko erretegiko berotasunera edo txingartzara erortzen ziren tanten ziztaketara, hotsezkoa gehiago berau egiazkoa baino. Anton Berendiak alboz zekusan katu handioski eseriari ez zegoen antzematerik erreketan interesatzen zitzean ala, keaz handiko lanbrotasunera begira, lurrinaz gozatzen ari zen. Neskamea erretegian sartzean bakarrik hasi zen apalean ezker-eskuin mugitzen, handik kanpora oinez ahazturik lez. Edo laguntza ala abandonoa eskatu ezin asmatuan. Bat-batean, jauzi bizia egin zuen, sukaldariak neskameari txuleta errea azpileratu zionean, zeinaren atzetik eta dudatu ere egin gabe, mahairaino jarraitu baitzuen, etxeko eginkizun jakin bat gehiago bezala.</p> <p>Neskameak «on egin!» erritualez alde egin zuenean, katua bertan geratu zen, eserkerari solemnitaterik indiferente bat emanez. Anton Berendiak hortzen laguntza-tresnak sailean jarri zituen, eta denbora laburrean txuleta hezurra biluzik uzteko martxa zeraman. Katua atzeko aldera pasatu zitzaion –«zaintzen ala bigilatzen ari zaidak hau?»–, eta bera ere aulkiz aldatzeko egon zen, norbaiten ohartze posiblearen lotsak atzeratu ez balu. Lastima hain katu ederra bide batez ezin kontenplatzea –pentsatzen zuen hozkada bakoitzean–, ahora bidean zeukan okela zatia zoru agerira botatzea</p>
---	---

<p>botatzea gogoratu arte. Katua kortesia kalmosoz hurreratu zati hartara, eta usna tolerante batzuk eginik, bertan utzi eiz, eskupekoa apalgarri edo sobornoa gaitzesgarri izatearen erretira exhibentean.</p> <p>– Baldin onetik hik ez nahi, ez nik, ba, txarretik emango –pentsatu eiz Anton Berendiak. Bi eskuekin hortzak hezur ondoko tirakada lehiatsuetara ezarritakoan, katua itzuli eiz eta etortzen beraganantz, aurreko pentsamendu okerraren kontuak eskatzeko plantan, baina neskamea tartetu, zer postre nahi galdezka.</p> <p>– Katu hau arra ala emea iz? – galdetu eiz Anton Berendiak.</p> <p>– Irendua –erantzun neskameak, irribarre goitarrez.</p> <p>– Orduan, noizbait arra izana – erantsi Anton Berendiak.</p> <p>– Emeak ere irentzen ahal – neskameak.</p> <p>– Egia! Baina irendu gabe, ez iz arrak bezain arriskutsuak.</p> <p>– Hori ere egia –neskameak–. Postrerik?</p> <p>– Zer gustatzen honi? –Anton Berendiak katuagatik.</p> <p>– Zuk emanik, ezer ere ez.</p> <p>– A zer gizalegea hemengoa! –hots egin eiz Anton Berendiak, katua eta neska berdintzeko tonuan.</p> <p>– Denekin egiten horrek berdin – leundu eiz neskameak.</p> <p>– Ekar orduan kafea.</p> <p>– Koparik?</p>	<p>gogoratu zitzaion arte. Katua kortesia kalmosoz hurreratu zen zati hartara, eta usna tolerante batzuk eginik, bertan utzi zuen, eskupekoa apalgarri edo sobornoa gaitzesgarri zaionaren erretira exhibentean.</p> <p>– Onetik nahi ez badun, ez dinat, ba, txarretik emango –pentsatu zuen Anton Berendiak. Bi eskuekin hortzak hezur ondoko tirakada lehiatsuetara ezarri zituenean, katua itzuli zen eta bazetorren beraganantz, aurreko pentsamendu okerraren kontuak eskatzeko plantan, baina neskamea tartetu zen, zer postre nahi zuen galdezka.</p> <p>– Katu hau arra ala emea da? – galdetu zuen Anton Berendiak.</p> <p>– Irendua –erantzun zuen neskameak, irribarre goitarrez.</p> <p>– Orduan, noizbait arra izana – erantsi zuen Anton Berendiak.</p> <p>– Emeak ere iren daitezke – neskameak.</p> <p>– Egia! Baina irendu gabe, ez dira arrak bezain arriskutsuak.</p> <p>– Hori ere egia –neskameak–. Postrerik?</p> <p>– Zer gustatzen zaio? –Anton Berendiak katuagatik.</p> <p>– Zuk emanik, ezer ere ez.</p> <p>– A zer gizalegea dagoen hemen! –hots egin zuen Anton Berendiak, katua eta neska berdintzeko tonuan.</p> <p>– Denekin egiten du berdin – leundu zuen neskameak.</p> <p>– Ekar orduan kafea.</p> <p>– Koparik?</p>
--	---

<p>– Kontua. – Txokorrik?</p> <p>– Kafea eta kontua –errematatu eiz Anton Berendiak, berak ere intentzioa ezartzen jakitearen airez.</p> <p>Neskameak «ederki!» esanda alde egitean, elkarri begira geratu eiz Anton Berendia eta katua, zeinak, plantari hobeto eusteko, gorputz osoari eragin txiki finkakor batzuk egindakoa, bere ohiko eserkeraren inperiala hartu eiz. Haren kolore gorri-gaztain luxuriantea aski postre eiz la emanik, Anton Berendiak, haren begi bien bilgune optikoa kaptatu gogoz, pentsatu eiz, irentasuna gogoan: «Lastima edertasuna naturaren bortxatik harakoa izan beharra!». Baina katu begiek, urruntasun beldurgarrietaraino islatzen ba iz ere, intimitateen ikusmirarik nekez onartzen iz la ohartzerako, neskameak kafea eta kontua mahaian utzi eiz, bi begiraden kontzentrazioa onenean etenez.</p> <p>– Nahi al hik hau? –galdetu eiz katuari Anton Berendiak, kontu-papera erakutsiz. Eta haren harrera maila tentatzeko, papera muturretik pasatu eiz nean, katu hain printzipalari marrau destripatu bat irten, eta ez eiz isatsik zorutik bereizi, erretegiko bere basera itzuli arte. Anton Berendia, kafea bi tragotan zurrut eginik, neskamea ibiltzen en alderantz zutitu eiz, bere orritxoaren eskuan-da. Ordainketako bueltak etorri bitartean,</p>	<p>– Kontua. – Txokorrik?</p> <p>– Kafea eta kontua –errematatu zuen Anton Berendiak, berak ere intentzioa ezartzen bazekielako airez.</p> <p>Neskameak «ederki!» esanda alde egitean, elkarri begira geratu ziren Anton Berendia eta katua, zeinak, plantari hobeto eusteko, gorputz osoari eragin txiki finkakor batzuk egindakoa, bere ohiko eserkeraren inperiala hartu baitzuen. Haren kolore gorri-gaztain luxuriantea aski postre zela emanik, Anton Berendiak, begi bien bilgune optikoa kaptatu nahi ziolarik, pentsatu zuen, irentasuna gogoan: «Lastima edertasuna naturaren bortxatik harakoa izan beharra!». Baina katu begiek, urruntasun beldurgarrietaraino islatzen badira ere, intimitateen ikusmirarik nekez onartzen dutela ohartu zenerako, neskameak kafea eta kontua mahaian utzi zituen, bi begiraden kontzentrazioa onenean etenez.</p> <p>– Nahi al dun hau? –galdetu zion katuari Anton Berendiak, kontu-papera erakutsiz. Eta haren harrera maila tentatzeko, papera muturretik pasatu zionean, katu hain printzipalari marrau destripatu bat irten zitzaion, eta ez zuen isatsik zorutik bereizi, erretegiko bere basera itzuli arte. Anton Berendia, kafea bi tragotan zurrut eginik, neskamea zebilen alderantz zutitu zen, bere orritxoaren eskuan-da. Ordainketako bueltak etorri</p>
--	--

katuagandik begirik ez kentzen,  
baina hura ez bide arretatzen bere  
bitrina lurruntsuaz kanpoko  
ezertaz.

bitartean, katuagandik begirik ez  
zuen kendu, baina hura ez bide zen  
bere bitrina lurruntsuaz kanpoko  
ezertaz arretatzen.

## IV

Anton Berendia, berariaz bilatutako jantoki bakartian, gau hartan ere agerpen bitxiren bat izateko pentsakizunean, bi hormen arteko angelura bizkarrez mahairatu eiz. Eta aurrez aurreko leiho urrunean katu bati erreparatu, alboz kukuldurik, zeina ezin igarri kanpoko iluntasun naturala ala barruko argitasun bortxatuegia beilatzen ari, baldin erdi lo ez egon. «Gaur ere bai ukan guk dibertsioa» pentsatuz, txuleta errearin bat eskatu eiz, sukalde eta zerbitzu-lanak batera eramateko plantadun emakume erremangatuari.

- Eta zopa fresko bat aurretik.
- Zopa freskoa? –galdetu eiz emakumeak, buruari atzerakada bat eraginez.
- Zopa esan al nik? Entsalada esan nahi eiz –zuzendu Anton Berendiak buru alboka, ardura handietan sartuta ibiltzekoa eginez, nahiz susmatzen ezen, azkenean, egokierarik onena eta laburrena izango eiz katuen sozio garbi agertzea. Katuak, Antonen pentsamenduaren zipriztinen batek ukiturik bezala, buruari ohiko eragin ia nabarigaitz bat egin eiz. Eta etxeakoandreaken sukalderanzko traiektoriari segitzen eiz lakoan, beste zerbaitera egon gero eta adiago. Anton Berendiak, begirada

## IV

Anton Berendia, berariaz bilatutako jantoki bakartian, gau hartan ere agerpen bitxiren bat izango zuelako pentsakizunean, bi hormen arteko angelura bizkarrez mahairatu zen. Eta aurrez aurreko leiho urrunean katu bati erreparatu zion, alboz kukuldurik, kanpoko iluntasun naturala ala barruko argitasun bortxatuegia beilatzen zegoen igartzen ez zitzaiona, erdi lo ez bazegoen. «Gaur ere badiagu dibertsioa» pentsatuz, txuleta errearin bat eskatu zion sukalde eta zerbitzu-lanak batera eramateko plantadun emakume erremangatuari.

- Eta zopa fresko bat aurretik.
- Zopa freskoa? –galdetu zuen emakumeak, buruari atzerakada bat eraginez.
- Zopa esan al dut? Entsalada esan nahi nuen –zuzendu zuen Anton Berendiak buru alboka, ardura handietan sartuta zebilelakoa eginez, nahiz susmatzen zuen azkenean egokierarik onena eta laburrena izango zela katuen sozio garbi agertzea. Katuak, Antonen pentsamenduaren zipriztinen batek ukitu balio lez, buruari ohiko eragin ia nabarigaitz bat egin zion. Eta etxeakoandreaken sukalderanzko traiektoriari segitzen ziolakoan, beste zerbaitera zegoen gero eta adiago. Anton Berendiak, begirada

haren norabide ustez horizontalari segituz, beste katu batekin topo egin eiz, manpara erdi tolestuaren kontrako mahai gainean lo. Bururik apenas nabarmentzen hari, nahiz arnasa bai hartzen irudi. Bultotxo haren orientazio loguratsuari jantoki erditik zehar beste aldeko hormaraino tiraturik, Anton Berendiak, gero eta festa-nahiago, hirugarren katu bat berari begira hauteman eiz. Bizimodua, batzuetan, emankorregi portatzen iz la pentsatu eiz, zeren, aspaldiko bakartasun desiratuaz gainera, katuen konpainia doakoa bidaltzen eiz berari, kanpoko otorduen segida etsiari jolas-aire ernarazle bat bihurtzera.

Hirugarren katuak, azken ikusiak baina hurbilen eiz enak, zumitezko saskitxo bat ukan ondoan, josketa edo puntugintzako iduri, zeinera tarteka luzatzen eta okertzen eiz bere burutxo nagia, haren barruko zerbaiten guardian egonez bezala. Eta Anton Berendiak katuari begiratzen, ez berari ardura eiz lako, halaxe egokitu eiz lako baizik.

– Baldin txuletarik ez gustatzen hiri, aginduta ukan nik, neskato! – esan katuari pentsamenduz Anton Berendiak, eme trataera seguruago izango eiz lakoan–. Hirurok bakarrik bizi al zuek hemen? – ironizatu Anton Berendiak, jantokiko hustasunari erruki harturik. Krisialdian kexa eta katua

haren norabide ustez horizontalari segituz, beste katu batekin topo egin zuen, manpara erdi tolestuaren kontrako mahai gainean lo. Bururik apenas nabarmentzen zitzaion, arnasa hartzen zuela bazirudien ere. Bultotxo haren orientazio loguratsuari jantoki erditik zehar beste aldeko hormaraino tiraturik, Anton Berendiak, gero eta festa-nahiago, hirugarren katu bat berari begira hauteman zuen. Bizimodua, batzuetan, emankorregi portatzen dela pentsatu zuen, zeren, aspaldiko bakartasun desiratuaz gainera, katuen konpainia doakoa bidaltzen baitzion kanpoko otorduen segida etsiari jolas-aire ernarazle bat bihurtzera.

Hirugarren katuak, azken ikusiak baina hurbilen zegoenak, zumitezko saskitxo bat zeukan ondoan, josketa edo puntugintzako iduri, zeinera tarteka luzatzen eta okertzen baitzuen bere burutxo nagia, haren barruko zerbaiten guardian balego lez. Eta Anton Berendiak katuari begiratzen zion, ez ardura ziolako, halaxe egokitu zelako baizik.

– Txuletarik gustatzen ez bazain, aginduta zeukanat, ba, neskato! – esan zion pentsamenduz Anton Berendiak, eme trataera seguruago izango zelakoan–. Hirurok bakarrik bizi al zarete hemen? –ironizatu zuen Anton Berendiak, jantokiko hustasunari erruki harturik.

<p>nonahi, baina oraingoan txuleta ere han etortzen, berakatez bizitua.</p> <p>Etxekoandreak erretilu pare, entsaladarena eta bestea, mahai gainean uztean, aulkipetik miau bat entzun eiz. Anton Berendiak hiru katuen egoitzak begiztu, eta hirurak eiz euren tokietan. Beraz, laugarren bat ibil mahaipean.</p> <p>– Baldin gutxiegi egina egon, esan –      –agindu eiz emakumeak, edontzia ardoz betez.</p> <p>– Zenbat katu ukan zuek etxe honetan? –galdetu eiz Anton Berendiak, mahaiekoaren bila makurtuz.</p> <p>– Ez guk kontatzen, zeren inoiz ez justua ematen.</p> <p>– Bakarra iz en lekuan ez iz gertatzen horrelakorik.</p> <p>Etxekoandrea joan eta katua geratu eiz, eta Anton Berendiak hara bosgarrena ere hauteman, nahiz eta arretaz begiratzean, ez izan katua. Ikatzezko plantxa ilun horietakoa eiz, beste zenbait tresna antzinakoren erreskadan, tximini ertzaren apaingarrizat.</p> <p>– Jan guk, jan guk, iz enen eta ez iz enen onerako –pentsatu eiz Anton Berendiak. Katuei gauez begiratzea txarra omen, batez ere eurek zuri begiratzen baldin.</p>	<p>Krisialdian kexa eta katua nonahi, baina oraingoan txuleta ere bazetorren, berakatez bizitua.</p> <p>Etxekoandreak erretilu pare, entsaladarena eta bestea, mahai gainean uztean, aulkipetik miau bat entzun zen. Anton Berendiak hiru katuen egoitzak begiztu zituen, eta hirurak zeuden euren tokietan.</p> <p>Beraz, laugarren bat zebilen mahaipean.</p> <p>– Gutxiegi egina badago, esan –      –agindu zuen emakumeak, edontzia ardoz betetzen ziola.</p> <p>– Zenbat katu dituzue etxe honetan? –galdetu zuen Anton Berendiak, mahaiekoaren bila makurtuz.</p> <p>– Ez ditugu kontatzen, inoiz ez baitu justua ematen.</p> <p>– Bakarra dagoen lekuan ez da gertatzen horrelakorik.</p> <p>Etxekoandrea joan zen eta katua geratu zen, eta Anton Berendiak hara bosgarrena ere hauteman, nahiz eta arretaz begiratzean, ez zen katua. Ikatzezko plantxa ilun horietakoa zen, beste zenbait tresna antzinakoren erreskadan, tximini ertzaren apaingarrizat zegoena.</p> <p>– Jan dezagun jan, direnen eta ez direnen onerako –pentsatu zuen Anton Berendiak. Katuei gauez begiratzea txarra omen, batez ere eurek begiratzen badizute.</p>
--	---



## V

Anton Berendiak, lan-ibileren aldakuntzak bide, hamabost egun lehenago zapaldu eiz lehen aldiz jatetxe hura, berak gero «Katutegi» deituko eiz ena. Jantoki jada erdi hustuan, katu nabar bat hauteman eiz, zeinak mahai-aulkien hankak ikuskatzen irudi, denak jatorrizkoak ote eiz, lepo-bizkarrarekin igurtziz eta isats puntarekin osatuz, ea norbaitek zerbait faltsua utzi izan ote.

Bigarren egunean, Anton Berendiak, mahaiian eiz la, txuleta erretzen ari bitartean, su inguruan bigarren katu bat hauteman eiz, zeina bere mahaipera iritsi otzan-otzan, okela lurruntsuaren atzetik.

Hirugarren egunean, lau katu hauteman eiz. Ez egon ziur denak berriak ote ala batzuk aurreko egunetakoak. Bat tximinian, bat leihoan, eta bi zoruan, eginkizun antolatu batean lez. Anton Berendia, egitekoak eginik, autoa irekitzean, konturatu eiz ezen katu batek barruan sartu nahi. Dudan egon eiz eraman ala ez, baina azkenean atea itxi hari, eta katuak ez egin jarraitzeko ahaleginik, txakur inkorregibleek egin ohi bezala.

Anton Berendiaren laugarren egunean, afaria egokitu eiz, eta bezperako katueta bat bere mahai gainera igo eiz, aurrez aurre

## V

Anton Berendiak, lan-ibileren aldakuntzak bide, hamabost egun lehenago zapaldu zuen lehen aldiz jatetxe hura, berak gero «Katutegi» deituko zuena. Jantoki jada erdi hustuan, katu nabar bat hauteman zuen, zeinak mahai-aulkien hankak ikuskatzen baitzirudien, denak jatorrizkoak ote ziren, lepo-bizkarrekin igurtziz eta isats puntarekin osatuz, norbaitek zerbait faltsua utzi bazuen.

Bigarren egunean, mahaiian zegoela, txuleta erretzen ari zen bitartean, su inguruan bigarren katu bat hauteman zuen, zeina bere mahaipera iritsi zen otzan-otzan, txuleta lurruntsuaren atzetik.

Hirugarren egunean, lau katu hauteman zituen. Ez zegoen ziur denak berriak ziren ala batzuk aurreko egunetakoak. Bat tximinian, bat leihoan, eta bi zoruan, eginkizun antolatu batean lez. Anton Berendiak, egitekoak eginik, autoa ireki zuenean, konturatu zen katu batek barruan sartu nahi zuela. Dudan egon zen eraman ala ez, baina azkenean atea itxi zion, eta katuak ez zuen jarraitzeko ahaleginik egin, txakur inkorregibleek egin ohi dutenez.

Anton Berendiaren laugarren egunean, afaria egokitu zen, eta bezperako katueta bat bere mahai gainera igo zen, aurrez aurre

eta bekoz beko. «Zapi!». Uxatzeko keinuz eskua luzatzean, erpekada bat jaso eiz, pentsamendua baino bizkorrago. Ez eiz sarraski bat izan, baina odola erion. Anton Berendia ez eiz konturatuko, baldin etxeakoandreak ez galdetu: «Zer gertatu zuri esku gainean?».

Lotsagarri baino gehiago, barregarria eiz egoera, katua mahaitik aulkira bakarrik jaitsi bait eiz, berriz igotzeko zain lez, etxeakoandreak alde egindakoan.

Anton Berendiak, txuleta bat gauerako astunegi gertatzen ahal bait eiz, sardinzar erreak eskatu olio gordinez, bizi-biziak, bere debilidadetako bat. Biharamun goizean berriro handixe pasatu behar, eta ostatua ere jatetxean hartan bertan hartu eiz.

Katu erpekariak logelara jarraitu eiz Antoni, eta barrura nahi. Anton Berendiak sartzen utzi hari, baina atea itxitakoan, katuak irten nahi, ileak harrotuz. «Ea, ba, argitzen iz gu!» esanez, atea ireki eiz, baina berriz itxitakoan, katua atetik hur-hur gelditu eiz la nabari, entzuten eiz en miauetatik. Umeak hil berri izatearen antza hartu eiz katuari. «Ez iz, ba, honek pentsatuko neu izatea hiltzailea!», beldurtu eiz Anton Berendia. «O, ez! –jabetu eiz bat-batean–. Horrek sardinzarrengatik jarraitzen niri». Goizean, gosaritan, barra luzearen alde batean jarriz batera, beste muturrean katu buru-handi bat hauteman eiz. Kolorengatik, lorontzi bat irudituko Antoni,

eta bekoz beko. «Zapi!». Uxatzeko keinuz eskua luzatu zionean, erpekada bat jaso zuen, pentsamendua baino bizkorrago.

Ez zen sarraski bat izan, baina odola zerion. Anton Berendia ez zen konturatuko, etxeakoandreak galdetu ez balio: «Zer gertatu zaizu esku gainean?». Lotsagarri baino gehiago, barregarria zen egoera, katua mahaitik aulkira bakarrik jaitsi baitzen, berriz igotzeko zain lez, etxeakoandreak alde egin zezanean.

Anton Berendiak, txuleta bat gauerako astunegi gerta zitekeela-eta, sardinzar erreak eskatu zituen olio gordinez, bizi-biziak, bere debilidadetako bat. Biharamun goizean berriro handixe pasatu behar baitzuen, ostatua ere jatetxean bertan hartu zuen.

Katu erpekariak logelara jarraitu zion, eta barrura nahi zuen. Anton Berendiak sartzen utzi zion, baina atea itxitakoan, katuak irten nahi zuen, ileak harrotuz. «Ea, ba, argitzen garen!» esanez, atea ireki zion, baina berriz itxitakoan, katua atetik hur-hur gelditu zela nabari zuen, entzuten ziren miauetatik.

Umeak hil berri zizkioten antza hartu zion katuari. «Ez du, ba, pentsatuko neu naizela hiltzailea!», beldurtu zen Anton Berendia. «O, ez! –jabetu zen bat-batean–. Horrek sardinzarrengatik jarraitzen zidak». Goizean, gosaritan, barra luzearen alde batean jarriz batera, beste muturrean katu buru-handi bat hauteman zuen. Kolorengatik, lorontzi bat irudituko zitzaion,

mugimendu nagiro ondulante batek katu bihurtua. Berehala, haur bat agertu eiz pare bat katakume besoetan ekarriz. Anton Berendia hurbildu eiz txeraz, eta katemeak – ama izan behar– erpeak jaurti berari. Ez eiz Antonen eskurik harrapatu, baina haurrak barre egin gogoz, «ez egiten ezer!», hots eginez. «Intentzioa ez eiz, ba, ezerezarena!», erantzun Anton Berendiak.

Autora itzultzean, txizalarri puntu bat nabaritu eiz. Ez eiz gizalege kurioa, baina toki ilun samarra izanik, eta inguruan inor ez egonik, murruren oineko erretenera apuntatu eiz. Begientzat murrua tope hurbilegia bait eiz, burua ezkerrentz biratu, eta bi katu-begi hauteman eiz, geldi-geldi, ez hain urrun. Burua berriz murrurantz ekarririk, txiza lasai egiten saiatu eiz. Autoa abiatzean, katu-begiak han geratu eiz, Antonen mugimenduari jarraituz. Honek, kilometro mordo batera, brast gelditu behar izan eiz, katu hilen lerro bat errepidean trabes aurkitzean. Izatez, katu bakarra eiz hila, baina, berak ere ez jakin en biderketa optiko bategatik, lerroa iruditu. Kontuz-kontuz, katu hila gainetik pasatu eiz gorpilen artean, eta beste nobedaderik ez izan egunean zehar.

Hurrengo egunean, Anton Berendiari gogoak ez lagundu nahi jatetxe hartan afaltzera, baina

mugimendu nagiro ondulante batek katu bihurtu zuena. Berehala, haur bat agertu zen pare bat katakume besoetan zekartzala. Anton Berendia hurbildu zen txeraz, eta katemeak –ama izan behar zuen– erpeak jaurti zizkion. Ez zion eskurik harrapatu, baina haurrak barre egin zuen gogoz, «ez du ezer egiten!», hots eginez. «Intentzioa ez zen, ba, ezerezarena!», erantzun zuen Anton Berendiak.

Autora itzultzean, txizalarri puntu bat nabaritu zuen. Ez zen gizalege kurioa, baina toki ilun samarra baitzen, eta inguruan inor ez baitzegoen, murruren oineko erretenera apuntatu zuen. Begientzat murrua tope hurbilegia izanik, burua ezkerrentz biratu zuen, eta bi katu-begi hauteman zituen, geldi-geldi, ez hain urrun. Burua berriz murrurantz ekarririk, txiza lasai egiten saiatu zen. Autoa abiatu zuenean, katu-begiak han geratu ziren, bere mugimenduari jarraituz. Kilometro mordo bat zeramala, brast gelditu behar izan zuen, katu hilen lerro bat errepidean trabes aurkitzean. Izatez, katu bakarra zen hila, baina, berak ere ez zekien biderketa optiko bategatik, lerroa iruditu zitzaion. Kontuz-kontuz, katu hila gainetik pasatu zuen gorpilen artean, eta beste nobedaderik ez zuen izan egunean zehar.

Hurrengo egunean, Anton Berendiari gogoak ez zion lagundu nahi jatetxe hartan afaltzera, baina

pentsatu eiz: «Orain ez gu hasiko superstizioetara makurtzen, eztok?». Sartu eiz jatetxean, eta neskameak aurea hartu, esanez: «Txuletak amaitu iz guri». Anton Berendiak erantzun: «Ez nik asmorik ere eskatzeko. Zer besterik ukan zuek okelatik?». Neskamea dudan gelditu eiz, eta «egon apur batean!» esanik, sukaldera joan, bueltan esateko: «Etxekoandreak esan iz ezen gisatua ukan, samur-samurra eta gozatsua». Anton Berendiak «ekar bera!» agindu eiz. Afaldu eiz lasai (astiro jatea maite), eta etxekoandrea ere agurtu nahi izan eiz, gisatu «benetan gozatsua» eskertuz.

Ondorengo astea jatetxe hartatik pasatu gabe egin eiz, lanaren ibilbide ezberdinak bide. Zortzigarren egunean itzuli eiz nean, afarian aurreratu ahala (txuleta egin-arin bat), harritu eiz konturatzean inon ez eiz la katurik ageri. Etxekoandrea agurtzean, harridura horixe adierazi eiz hari. Ez eiz gutxiago harritu etxekoandreak esatean:

- Katuak janak iz.
- Janak? –sorprestu eiz Anton Berendia, eta etxekoandreak:
- Zeuk ere esan eiz ezen gisatua «benetan gozatsu» egon.

Anton Berendiaren esteak suge-multzo zirikatu bat bezala astindu eiz, baina esan xoilki: «Egia!».

pentsatu zuen: «Orain ez gaituk hasiko superstizioetara makurtzen, eztok?». Sartu zen jatetxean, eta neskameak aurea hartu zion, esanez: «Txuletak amaitu zaizkigu». Anton Berendiak erantzun zuen: «Ez neukan eskatzeko asmorik ere. Zer besterik daukazue okelatik?». Neskamea dudan gelditu zen, eta «egon apur batean!» esanik, sukaldera joan zen, bueltan esateko: «Etxekoandreak dio gisatua daukala, samur-samurra eta gozatsua». Anton Berendiak «ekar bera!» agindu zuen. Afaldu zuen lasai (astiro jatea maite zuen), eta etxekoandrea ere agurtu nahi izan zuen, gisatu «benetan gozatsua» eskertuz.

Ondorengo astea jatetxe hartatik pasatu gabe egin zuen, lanaren ibilbide ezberdinak bide. Zortzigarren egunean itzuli zenean, afarian aurreratu ahala (txuleta egin-arin bat), harritu zen konturatzean inon ez zela katurik ageri. Etxekoandrea agurtzean, harridura horixe adierazi zion. Ez zen gutxiago harritu etxekoandreak esan zionean:

- Katuak janda daude.
- Janda? –sorprestu zen Anton Berendia, eta etxekoandreak:
- Zeuk ere esan zenuen gisatua ‘benetan gozatsu’ egon zela».

Anton Berendiaren esteak suge-multzo zirikatu bat bezala astindu ziren, baina esan xoilki: «Egia!».

Kotxera ondo iritsi eiz, baina  
abiadura hartzean, larritzen hasi eta  
pentsatu eiz ezen hobe izango  
baztertzea, bazterra jotzea baino.  
Autotik irten aurretik, bolanteari  
esku biekin gogor heldurik,  
arrazoitzen saiatu eiz: «To! Gisatua  
aspaldi joana iz. Orain botaka  
hasteak ez ukanke zentzurik».  
Arrazoi sendoa iruditu, baina  
bigarren arrazoi baten bila hasirik,  
bururatu eiz hari: «Baldin katuak  
urdaitetik bakez pasatu, ergela  
behar haiek ikusteaz larritzeko».  
Bakeagatik edo ergelagatik,  
arrazoiketa efektiboa izan eiz.  
Jatetxean katuak ugaltzen hasi eiz  
berriz, eta Anton Berendiaren  
begientzat gehiago ez eiz izan  
mahai-hankak bezain elementu util  
batzuk baizik.

Kotxera ondo iritsi zen, baina  
abiadura hartzean, larritzen hasi  
zen eta pentsatu zuen hobe izango  
zela baztertzea, bazterra jotzea  
baino. Autotik irten aurretik,  
bolanteari esku biekin gogor  
heldurik, arrazoitzen saiatu zen:  
«Gisatua aspaldi joana duk. Orain  
botaka hasteak ez likek zentzurik».  
Arrazoi sendoa iruditu zitzaion,  
baina bigarren arrazoi baten bila  
hasirik, bururatu zitzaion: «Katuak  
urdaitetik bakez pasatu badira,  
ergela behar dik haiek ikusteaz  
larritzeko». Eta bakeagatik edo  
ergelagatik, arrazoiketa efektiboa  
izan zen. Jatetxean katuak ugaltzen  
hasi ziren berriz, eta Anton  
Berendiaren begientzat gehiago ez  
ziren izan mahai-hankak bezain  
elementu util batzuk.